

Txernobilgoaren ondorio larriak estaltzeko konplota

Suitzako Genevan Munduko Osasun Erakundeak (MOE) duen egoitzara hurbiltzen bazara, atarian protestari talde bat topatuko duzu. MOEren independentzia aldarrikatzen dute eta Txernobilgo zentral nuklearraren leherketak gizakietan gaur ere eragiten dituen kalteak aztertzeko batzordea osatzea.

TXERNOBILGO DOSIER LURPERATUAK, horrela bataiatu du *Le Monde Diplomatique* Alison Katz-en artikulua martxo honetako zenbakian. Mezua: mundutarron osagarria zaindu behar duen Munduko Osasun Erakundeak (MOE) zentsuraturik eta ezkutuan dauzkala gorderik Txernobilgo leherketaren inguruko dokumentu garrantzizkoak, zergatik eta Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentziak (EANA) horretara behartu duelako.

Apiril honen 26an ospatuko delarik Txernobilgo hondamendiaren 22. urteurrena, baliteke telebistek erakustea Genevan MOEk duen egoitzaren aurrean biltzen den militante koadrila, kontuan izanik gainera egun horietarako Europa mailako deialdi zabala daukatela egina. Baina urtebete daramate jauregiaren atarian, goizero beren pankartak erakusten, Leioan EHÜren sarreran oraindik hiru irakasle kanporatut egiten duen modu bertsuan. Izan euri edo eguzki, Europa osoko militante adin guztietakoak ari dira hilabeteotan aldarrikapen horiei eusten, *Pour l'Independance de l'OMS-For an Independent WHO* elkarteak bere webguneko argazkietan erakusten duenez.

Eskandaluaren neurria emateko, honela hasi du artikulua Alison Katzek: “Berririo gezurretan. 2007ko ekainean MOEko bozeramaileetako den Gregory Hartl-ek argudiatu zuen Nazio Batuen Erakundeak jadanik pla-

zaratu dituela Txernobilgo hondamendiari buruz 1995eko azaroan egindako biltzarraren agiriak. Baina ez dira sekula argitaratu; ezta Kieven gai beraz izandako biltzarraren aktak ere. Kazetariak eskatutakoan, Hartlek ezin izan zituen aipatu Kieveko txostenen laburpenak eta Genevakoan aurkezturiko hunka artikuluetatik hamabi baizik”. Horregatik diote MOE atarian dauden militanteek Txernobil inguruetan milioitik gora haur daudela erradioaktibitatez kutsaturik eta MOE dela horiek ez artatzearen konplize.

Alison Katz bera MOEko funtzionari izan zen 18 urtez, eta barrutik ezagutzen du erakundea. Izan ere, MOEk ezin du nuklearrari buruzko gaietan urratsik egin ez bada energia atomikoaren kontrolaz okupatzen den EANAren oniritziarekin. Kontua da EANA famatuak –Iran arma nuklearrrez hornitzen ari ote den ikuskatzen duena, besteak beste– ofizialki 56 hildako onartzen dituela Txernobil eta 4.000 tiroideetako kantzer. Posible ote da? Bai, dirudienez, MOEk ere ontzat eman behar izan ditu-eta kopuruok. EANA munduan energia atomikoaren erabilera baketsua sustatzeko erakundea da, NBEaren Segurtasun Kontseiluan adarra, baina praktikan *lobby* nuklearraren tresna da.

Txernobilgo zentralaren leherketak berak eta hura menderatzeko lanek eragindako heriotzez gain, erektoreak

Lerroon ondoko argazkia otsaileko egun batean dago aterea Suitzako Genevan, Munduko Osasun Erakundearen egoitza den jauregiaren atarian; urte osoan zehar eguneroko protesta ekitaldian parte hartzen duten pertsonetako bi erakusten ditu. MOEri eskatzen diote aska dadila Energia Atomikoaren Nazioarteko Erakundearekiko menpekotasunetik, eta aurpegiatzen diote Txernobilgo hilketaren konplize izatea. Kanpainaren antolatzaileak Suitzako eta Frantziako talde eta erakunde antinuklearrak dira, baina mundu osoko beste askoren babesa jaso dute, bai aktibista taldeena baina baita minbiziak kaltetutako herritarren erakundeena, bakearen aldekoena, eta beste. Protestara pertsonalitate famatuak erakartzeaz gain, munduko osasungintzako profesionalen arteko sinadura bilketa ere antolatu dute.

atmosfera isuritako erradiaktibitate kopuru izugarriak ondoko 22 urteotan bere kalteak eragin ditu, eta eragiten segituko du geroan. Ukrainan, Bielorrusian eta Errusian egin diren ikerketetan frogatu da klase guztietako kantzerrak ugari direla, haur txikien hilkortasuna handitu, eta gehitu egin direla abortoak, gaixotasun genetikoak. jaiotzatiko elbarritasunak, eritasun neuropsikologikoak, itsutasunak, arnasbideetako gaitzak, bihotzekoak, hesteetakoak, ur-genitalak, endokrinoak... Baina zein kopurutan zehazki?

Lobby nuklearraren eskua

Wikipedian “Txernobilgo hondamendia” bilatu besterik ez dago –euskarazko sarrera oso txukuna da– saltsaren neurriaz ohartzeko. MOEk eta EANAk 2005ean antolatu zuten Txernobil Foroak demonstratuz utzi zituen aipatu kopuruak, 56 hildako lekuan berean eta 9.000 erradioaktibitateak erakarritako kantzerrengatik. Aldiz, Greenpeace-k 52 adituri enkargatutako txostenak dio 270.000 kantzer eragingo dituela Txernobilek sortutako euri erradiaktiboak eta balitekeela horietatik 93.000 kalitza.

Beste adibide makabro bat, “likidatzaile” deituena da. Likidatzaileak izan ziren Txernobilgo zentralako sutea amatatzen eta inguruak garbitzen aritu ziren langileak. Likidatzaileen kopurua bera ere ez da segurua, txos-



ten batzuetan 300.000 aipatzen dira eta beste batzuetan 900.000. Behargin armada hori pasatu zen hondamendi genetiko, ez jazki eta ez babesgari egokirik gabe, ordu edo egun batzuetako lana egitera. Zenbat hil dira? Horien erreferentziarik ez da MOE eta EANAREN txostenetan; aldiz, Txernobilgo Likidatzaileen Batasunak dio dagoeneko 50.000 eta 100.000 artean hil direla, eta gainerako gehienak ezindurik daudela. Horien seme-alabei sortu ahal izan zaizkien osasun arazo ez ere gutxi dakigu. Nola da posible XXI. mendeko Europan?

Alison Katzek orain arteko akatsak bitan sailkatu ditu. Batetik, informazio txukuna eskuratzeko biderik ez da egin: datuak gorde eta faltsutu egiten dituztela, erradiaktibi-

tatea ez dela sistemaz neurtzen, kantzerreren jarraipenik egin ere ez, iker-tzaile independenteak zigortu eta pertsegitu egiten dituztela, eta Ukrainan, Bielorrusian eta Errusian sortutako informazio asko ez direla beste hizkuntzetara itzuli.

Baina bada bigarren akats multzoa manipulazioa deitu behar dena, desinformazioa: irradiatutako jendeen jarraipena hamar urteen buruan etetea, gaixo batek bost urte iraun duenean sendatuztat kontatzea, kantzerra ez diren beste gaitzak kontuan hez artzea, aipatu hiru herrialdeak besterik ez kontatzea, eta abar luze bat. Hona manipulazioaren adibide nazkagarri bat: “Iritsi dira haurren arteko kantzerrak gutxitu direla esatera, benetan zera gertatu denean, haur horiek han-

ditu egin direla eta handitzean kantzerra garatu dutela; baina jada ez daude data basetan”.

Informazioaren ezkutatzeko ahale-ginean hiru herrialde kaltetuenetako agintariek badute erantzukizuna. Hala ageri da Iuri Bandazhevsky –Bandajevski, frantsesezko grafian– mediku ikerlariaren kasuan: Bielorrusiako Gobernuak preso hartu zuen, lege antiterrorista erabiliz, Txernobilek herritarren osasunean egindako kalteak ikertu eta publikoki salatzeagatik. 2003an Net Hurbil batean aipatu gizona orain Frantziako Clermont-Ferranden bizi da herbesteratuta.

Baina estatuen indarrak gain industria nuklearraren presioak nabarmendu ditu Alison Katzek Txernobilaren inguruko *omertá* zorrotza esplikatzeko. Urte luzez tabakoa, kimika eta petrokimikako enpresa handiek *lobby* lana egin bazuten zigarretaren kontrako politikak oztopatzeko, “*lobby* nuklearra anitzez bortitzagoa da: bere baitan daude arma atomikoak dauzkaten estatuak, batik bat AEB, Britainia Handia eta Frantzia, eta baita gobernuen arteko erakundeak ere”. Horien beso luzeak erraz mugitzen ditu unibertsitateetan ari diren ikerlari askoren hariak, ikastetxeak ere finantziario beharrean baitaude.

Apirilean zehar MOEaren Genevako jauregiaren atarian ohi baino militante eta aldezk gehiago egongo dira, Txernobilgo egiak ezagutzea eskatuz. 22 urteotan zentsuratu den informazioa plazaratzea, alegia. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Produkturik onenak,
Zinkunegi Optikan

Aukerarik zabalena
betaurreko graduatu,
ukipen-lente,
audiofono eta
eguzkitako
betaurrekoetan.

ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani kalea - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL: 943 420 524

K A L I T A T E A